

Garofia. El Gobierno central quiere que la central nuclear burgalesa se mantenga operativa y espera que Iberdrola y Endesa sigan operando o les releve otra compañía. **P.6-7**

BIHAR, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA



"Gaztelaniaren komodina ez erabili eta dena euskaraz egiten saiatzen naiz"

NURIA PEÑA
Euskaldun berria

tutako aula irekia bezalako proiektuak desagerrarazi baitituzte, ehunka ikasle on line ikasteko aukerari gabe utziaz.

Egoera honen aurrean, euskaldun berriek "oraindik eta esfortzu handiagoa" egin behar dutela diote mahai inguruko partaideek. Eta



"Helburua politikari guztiak euskaraz elkar mokoka ikustea izan beharko litzateke"

ZIGOR ETXEBURUA
Gipuzkoako Aldundiko Euskara zuzendaria

espero dute Administrazioek, Nafarroan gertatu den ez bezala, hizkuntza politikak mantentzea. Modu horretan, eta euskara borroka politikotik aterata bakarrik ziurtatuko da euren ustez hizkuntzaren etorkizuna. Aldundiko arduraduna "herri akordioaz" mintzatu zen,



"Euskaldun berriei lasaitasuna eta pazientzia eskaini behar zaizkie"

TXARLI GARCÍA
Euskaltegiko irakaslea

alderdi guztiek noranzko berean arraun egin beharko luketela euskarak egun duen "impasse egoera" gainditu eta ezagutza fasetik erabilerara igarotzeko.

Zailtasun ekonomikoari aurre egiteko, aukera asko daudela diote, euskara eskolak dohain eskaintzea



"Guretzako konkista zena, gazte askok 'txapa' edo 'rollo' bezala ikusten dute"

KIYE AMONARRIZ
Soziolinguista, umorista eta aurkezlea

esaterako. Baina, Aldundiaren kalkuluen arabera, 2,5 milioi kostatuko litzateke zerbitzua eta egungo egoera "ez da egokiena".

Horren aurrean, gizarteak eta Administrazioak eskutik joan behar dutela iruditzen zaio Amonarrizi, bien artean "euskararen aldeko ilu-



"Oso gogorra da menperatzen ez duzun hizkuntza umea bazina bezala hitz egitea"

AITZIBER SAN ROMAN
Donostiako zinegotzia eta euskara irakaslea

sioa sortu eta belaunaldi erreleboa ziurtatzeko".

Egungo egoera ahaztu ezin badute ere, solaskideek etorkizun oparora ikusten diote hizkuntzari: "Euskara geurea da eta hemen dago, ez beste inon, beraz hemen konpondu behar dugu bere etorkizuna".



mahai inguruan. ARGAZKIAK: JAVI COLMENERO

Eta hik? Nola bizi dünk euskara?

EHU-KO DONOSTIAKO KANPUSEAN MINTZODROMO BEREZIA ANTOLATUKO DUTE BIHAR AURPEGI EZAGUNEKIN

DONOSTIA. Euskararen nazioarteko Eguna dela eta, bihar, mintzodromo berezia antolatu dute Gipuzkoa Aldundiak, *Gaztezulok* eta Euskal Herriko Unibertsitateak EHU-k Donostian daukan kanpusean. *Eta hik? Nola bizi dünk euskara?* lelopean, ikasleen artean euskara sustatzea bilatuko du ekimenak. Eta horretarako, Maialen Lujanbio bertsolaria, Alex Txikon mendizalea eta Ainhoa Garai aktorea bezalako alor ezberdinetako pertsonaia ezagunen babesa izango dute antolatzailleek.

Guztiak euskararekin izan dituzten pozak, oztopoak, aurrerapausoak, aurpegi txarrak, aldaketak eta anekdotak kontatuko dituzte jendaurrean, *euskaraterapia* moduko zerbait bailitzan.

Solasaldiak 10.00etan hasiko dira Carlos Santamaria zentroan. Guztira, hamar mahai jarriko dira eta bakoitzean bi aurpegi ezagun eta bost gazte arituko dira esperientziak elkar banatzen. Lehenbizi, antzerki talde batek zenbait egoera linguistiko islatuko ditu esketx laburretan eta, horietatik abiatuta, mahai bakoitzean eztabaidak hasiko dira.

Horrela, gazteak mahaiz aldatuko dira esketx bakoitzari lotutako eztabaida saio bakoitzeko, jende ezberdinarekin hitz egiteko aukera izan dezaten.

Guztira, ordu eta laurdeneko bi saio egingo dira. Lehenengoa, 10.00etan eta bigarrena, 11.30ean. Amaitzeko, 13.00ak aldean, Fermin Muguruzaren eskutik arrakasta lortu duen Zuloak taldeak kontzertua eskainiko du.

Ikasleez gain, gainerako herri-tarrek ere parte hartu ahal izango dute mintzodromoan. Horretarako, pasa den astean izena eman behar zen *gaztezero.com* atariko Ikamizka gunean ageri zen formularioa beteta.

SAN TELMO Unibertsitateko hitzordu honez gain, beste hainbat proposamen izango dira bihar Donostian Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko. San Telmo museoan, esaterako, bi mintzodromo antolatuko dituzte 10.00 etatik aurrera *Badu Bada* erakusketaren baitan.

Bertaratzen direnek, Mintzandegian proiektua ezagutzeko parada izango dute bertan, "euskararen erabilerari Interneten bultzada emango dion erreminta".

Gainera, hiriburuko auzo gehienetan beste hainbat ekitaldi presatuko dituzte gaur, asko eta asko, haurtxoko eta gaztelekuen eskutik. **>E.A.S.**